

Alardea. Eskupetariak

Guztiok ezagutu eta askok ospatzen dugun amaiera zoriontsuko gudaldi bat oroitzeko egiten diren alardeei atentzio kentzen badiegu, esan genezake armazko agerraldi hauen sorrera, oso ikusmira zabaletik eginda, Paktu Forala deitutakoan dagoela, honen gainean hitzegiteko lekua eta garala ez bada ere.

San Juan goizean agertzen diren eskupetariak –azken urteotan gizon eta emakumezkoak–, badute zerikusirik Pablo Gorosabel-ek aipatzen duen *alarde de jóvenes armados* delakoarekin, gure Patroi Santuaren ohorez antolatuko ekintzetan erreparatzen duenean; eskupetari horiekin, oroimen bat gurtzen dugu, bere sustraiak gure herrietako bizitzaren iraganean ikusitako portaeran sartzen dituena. Eta iragan honetan, ohitura/lege honetan zirikatuko dugu, arin bada ere.

Ugariak dira Gipuzkoako Batzarrek eta Diputazioek probintzirako eta herrietarako hartutako erabakiak armatutako jendearen gainean eta hortik dator hain zuzen ere, gure eskupetari festalarien parte hartzea.

Daukagun lekuaz ahalik eta gehien baliatuz, transkribatu egingo ditugu, grafia gaurkotuaz irakurketa errazteko, XVI. mendean Batzar Nagusiek hartutako erabaki batzuk; agertzen dira *San Juan fiestas* eta *Tolosa* hitzak. Gure ahalegina lortzeko interesgarria izango delakoan gaude eta asmoa dugu gaiaren inguruan argigarria eta didaktikoa izatea.

Tolosako herria, 1557ko irailaren 14an,

se juntaron y congregaron en Junta Particular y llamamiento los Magníficos señores los procuradores de los hijosdalgo de las villas, alcaldías y lugares de esta Muy Noble y Muy Leal Provincia de Guipúzcoa, en uno con el Corregidor de la dicha Provincia por la Real Magestad.

Eta herri bakoitzak bere armak agertzea komeni zelako edo asmoa hartu zuten:

se diese una joya en cada pueblo al que sacase el mejor arcabuz o pica y tirase mejor, para que estuviese la gente en todo tiempo mejor apercebida para todo tiempo que fuese llamada y fuese necesario.

Eta gaiaren haria galdu gabe, ikus dezagun 1572ko azaroaren 19an Segurako Batzarrean hitzegindakoa; Tolosaren izenean, bertako herritarra zen Domingo de Aburruza prokuradoreak hartu zuen parte.

Y asi reunidos acudió a la dicha Junta el Comisario nombrado por esta Provincia para la lista de las armas. Y dice que su parecer es que esta Provincia debía dar orden cómo en toda ella el día de San Juan Bautista o el día de Santiago se hiciese en cada villa y alcaldía alarde general y que todos los vecinos y moradores estuviesen armados de arcabuz, morrión, picas y coseletes y no de ballestas. Y estas armas, pues son y han de ser de hijosdalgo, se pida a Su Magestad mande a sus justicias que por deuda ni delito que cometan no puedan ser ejecutadas ni secuestradas, tomadas ni vendidas las dichas armas, porque de esta manera cada uno estará proveido de armas sin que le falte a ninguno.

Eta Oiartzunen egindako Batzarrean, 1579ko irailaren 6an, Tolosa aita-tzen da probintzia osoko alardeak egiteko lekuri aproposena bezala ondoren ederki asko ikusiko dugun bezala.

Gipuzkoako Kapitain Nagusiak, besteak beste, agindutakoa:

encargó a la Provincia que cada uno en su villa procurase que estuviesen bien armados de arcabuces y otras armas que fuesen útiles y necesarias para la guerra, fuera de ballestas que no son tan útiles ni necesarias para el tiempo presente, y la gente haga algún ejercicio en las fiestas (...).

Korrejidorearen ahotik:

dijo que conforme a lo que se había propuesto por la villa de Tolosa, y hoy en esta Junta por el señor Capitán General, teniendo consideración de lo que podría suceder de lo contrario, entendía que el lugar más cómodo y conveniente para el servicio de Dios y de Su Magestad y bien universal de la republica, era la villa de Tolosa, adonde mudaría luego su Audiencia (...).

Eta agerpen labur honi amaiera emateko, eta sinplekeriatan erortzeko arriskua izanda ere, esan genezake gure festak aberasten dituzten Alardea edo Eskupetariak gure portaera historikoaren berpiztea ekartzen dutela.



Alardea. Eskupetariak = El alarde. Los escopeteros / Juan Garmendia Larrañaga. – En : *San Juan Jaiak 1994 Tolosa*. – Tolosa : Tolosako Udala, 1994. – [32] p. : il. ; 25 cm. – P. [27, 29]. – OC. T. 4, p. 451-454